



Hezkuntzarako COVID-19aren arloko koordinazio batzorde teknikoa

2021-2022 IKASTURTEKO 5. BILERA. - OSTEGUNA, 2002ko OTSAILAREN 24a

PARTE-HARTZAILEAK:

Nafarroako Eskola Kontseiluko Hezkuntzarako COVID-19 koordinaziorako lan-batzordeak 5. bilera egin zuen, 10:00etan, aurrez aurre, Hezkuntza Departamentuko ekitaldi aretoan Han izan ziren ordezkari hauek: Hezkuntza Departamentuaren aldetik, Eneko Ardaiz Azpiegituren Zerbitzuko zuzendaria eta Luis Calatayud Informazio Sistemen Zerbitzuko zuzendaria (Alberto Urrutiak, Ikuskapen Zerbitzukoak, ezin etorria adierazi zuen); Osasun Departamentuaren aldetik, Arantxa Legarra Osasun Komunitarioa Sustatzeko Zerbitzuko eta Aurelio Barricarte Epidemiologiaren eta Osasun Prebentzioaren Zerbitzuko; Batzorde Iraunkorraren aldetik, LABeko Gorka Bueno, Oihana Jordanaren ordezkari gisa, eta STEILASeko Arantxa Ruiz Vidorreta, ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkariak; FSIE-SEPNAko Pilar López Valderramak, ikastetxe itunduetako irakasleen ordezkariak, ezin etorria adierazi zuen; Herrikoako Noelia Echarri, Maria Rodríguez Moráñen ordezkari gisa, ikastetxe publikoetako guraso-elkarteen ordezkaria; CONCAPAko Teresa Modolek, ikastetxe itunduetako guraso-elkarteen ordezkariak, ezin etorria adierazi zuen; Jorge Lanchas, ikastetxe pribatuetako entitateen ordezkaria; Antonio Iriartek, Nafarroako Eskola Kontseiluko idazkariak, ezin etorria adierazi zuen; Iosu Mena ADIko lehendakaria (Zuzendarien Elkarte); Pedro Rascón Nafarroako Eskola Kontseiluko kidea. Batzordeburu lanak Manuel Martinek, Nafarroako Eskola Kontseiluko buruak, egin zituen.

Gai-zerrenda:

1. Azken bileraren akta.
 2. Zertan diren une honetan ikastetxeetako kasu aktiboak. Informazio mota berria.
 3. Kontingentzia Plana eguneratzeko proposamenak.
-
1. 2021-2022 ikasturteko 4. bileraren akta (2022ko urtarrilaren 20koa, osteguna). Onetsi egin da.
 2. Zertan diren une honetan ikastetxeetako kasu aktiboak. Informazio mota berria.

Informazio Sistemen Zerbitzuko **Luis Calatayudek** egungo egoerari buruz hitz egin du. Egoera horretan, eskola komunitateko kideen kutsatzeak nabarmen murriztu direla nabarmentzen da, hori gizartearen momentuko isla da. Halaber, protokolo berriaren berritasunen berri eman du, baita jakinarazpenetan sistema automatiko bat ezarriko dela iragarri ere. Sistema horrek COVID arduraduna liberatuko du, baina horretarako familiek Educan erregistratu beharko dute, eta dagokien baimena eman beharko zaie.

Neurri guztiak kendu direnez, barnean maskara eramatearena izan ezik, COVID aurreko normaltasuna itzuli dela jakinarazi du.

Herrikoako **Noelia Echarrik** galdetu du ea sartzetan mailakatzea mantentzen den. Erantzun zaio ez dela nahitaezkoa neurri hori mantentzea, baina beharbada ikastetxe batzuek oraindik beharrezko ikusten dutela. Eskatu du COVID batzordeari igor dakizkiola ikastetxeei igortzen zaizkien jakinarazpenak.

ADIko **Iosu Menak** adierazi du, mailakatutako sartzeei dagokienez, zenbait neurri berriz



diseinatzea lan handia dela; bere ustez, gai pedagogikoen gainean eraginik ez duen oro ikasturtea amaitu arte mantentzen ahal da.

Etorkizuneko neurriei buruz, Osasun Departamentuko **Aurelio Barricartek** esan du deseskalatzea maskaretan, konfinamenduetan eta abarretan oinarritzen ahal dela, baina, gaur egun, dagoen eragin mailarekin, oraindik ere goiz dela zenbait murrizketa indargabetzeko, nahiz eta agian berrogeialdiak amaieratik gertu egoten ahal diren.

Eneko Ardaiz Azpiegituren Zerbitzuko zuzendariak jakinarazi du COVID-19aren aurkako materialen hornidurak aurreikusitakoaren bidetik segitzen duela.

Jorge Lanchas Nafarroako zentro pribatuetako entitate titularren ordezkariak espero du Osasun Departamentuak aurreikusitako neurriak azkar egotea pandemiaren aurreko egoeratik gertu.

Osasun Departamentuko **Arantxa Legarrak** jakinarazi du programatutako jarduera guztiak berriro daudela martxan, fruta eta barazkien programa barne, hala eskatzen duten ikastetxetarako.

Azkenik, erabaki da hurrengo bilera 2022ko martxoaren 31n egingen dela, osteguna, 10:00etan.

Manuel Martín Iglesias

Lehendakaria